

4. Aditz sintagma

4.1. Aditz sintagmaren egitura

4.2. Aditza

4.2.1. Aditzaren sailkapena formaren aldetik

- a. Bakunak
- b. Eratorriak
- c. Elkartuak

4.2.2. Aditzaren sailkapena moldeari begira.

4.2.2.1. Aditz jokatuak

- a. Partizipioa
- b. Aditzoina
- c. Aditz izena

4.2.2.2. Aditz jokatuak

- a. Adizki trinko edo sintetikoak
- b. Adizki perifrastiko edo konposatuak

4.3. Adberbioa

3.1. Aditzondoak. Motak

- a. Denbora aditzondoak
- b. Leku aditzondoak
- c. Modu aditzondoak
- d. Maila aditzondoak
- e. Iritzi aditzondoak

4.3.2. Adizlaguna

4.3.2.1. Adizlagunak

4.3.2.2. Posposizioak

4.1.- ADITZ SINTAGMAREN EGITURA

Aditz sintagma perpausaren bigarren atala da, eta era honetara berridatz dezakegu:

AS → (adlag.) + (adond.) + (IS nori) + (IS nor) + ad.

Osagaiak parentesi artean agertzeak hautazkoak, aukerakoak, direla adierazi nahi du; hots, ager daitezke edo ez. Ezinbestekoa aditza da bakarrik.

4.2.- ADITZA

Definizio modura, aditzak, sintagmaren gunea izateaz gain, perpausaren edozein motatako ekintza edo prozesuren bat adierazten duela esaten da. Hau da, perpausaren subjektuari dagokion izaera, egoera, portaera edo gertaera baten gauzatzea da.

Ni menditik gaur etorri naiz.

Musika entzutea oso atsegin dut.

Etorri naiz, entzute, atsegin dut aditzak dira. Aditzak dira, era berean, joan, ibili, saldu, eskertu, itxuraldatu, e.a.

Aditza era askotara sailka daiteke, aukeratutako irizpidearen arabera.

4.2.1.- Aditzaren sailkapena formaren aldetik

Formaren aldetik, aditza bakuna, eratorria eta elkartua izan daiteke.:

a.- Bakunak: aditz hutsak dira, hau da, ez dira beste kategoria gramatikal batetik eratorriak: saldu, erosi, ikusi, egin, joan, erosi...

b.- Eratorriak: sail honetakoak beste kategoria gramatikal batetik eratorriak edo hartuak dira.

Gizon → gizondu

Esker → eskertu

Luze → luzatu

Gorri → gorritu

Argi → argitu

Berandu → berandutu

Hurbil → hurbildu

Egin → eragin

Ibili → erabili

c.- Elkartuak: honela deitzen diegu bi elementuz osaturiko aditzei.

Era + berritu → eraberritu

Itxura + aldatu → itxuraldatu

4.2.2.- Aditzaren sailkapena moldeari begira

Moldeari begira, aditza molde jokatu gabea nahiz jokatu ager dakiguke.

4.2.2.1. Aditz jokatu gabeak

Adizki jokatu gabeak inolako pertsona edota denbora markarik ez dutenak dira. Esate baterako: ikastea, ikusirik etorrita, jateko...

Aditz jokatugabea hiru modutara ager dakiguke:

- Partizipio gisa : agertu, josi, joan...
- Aditzoin gisa: ager, jos, joan...
- Aditz izen gisa: agertze, joste, joate...

a. Partizipioa

Aditzak, norm alean, partizipio eran aipatzen ditugu :

Lapurtu; erosi; eman; ikusi; nekatu...

Partizipiozko forma horien gainean eraikitzen ditugu, esate baterako, geroaldiko formak, partizipioari *-ko* edo *-go/-en* atzizkiak erantsiz. Partizipioa bokalez bukatzen bada, *-ko* atzizkia erabiltzen da. Kontsonantez bukatzen bada, berriz, *-go/-en* atzizkiak.

Apurtuko ; erosiko ; emango/emanen...

Bestalde, partizipioa, ekintza bukatua dagoela adierazteko, aspektu burutuko adizkiak sortzeko ere erabiltzen dugu.

Horretarako, laguntzailea eransten diogu, orainaldikoa zein lehenaldikoa.

Apurtu dut; erosi zuen; eman zenuten...

b. Aditzoina

Partizipiozko formen azpian bi elementu ditugu: aditzoina eta atzizkia. Aditzoina, beraz, aspektu markarik gabeko aditz forma dugu eta partizipioaren oinarritzko elementua. Ikusi adibideak:

Hartu = har + -tu	Ibili = ibil + i
aditzoina atzizkia	aditzoina atzizkia

Partizipioak sortzeko atzizkiak *-i* eta *-tu/-du* dira. Zenbait aditzetan aditzoinaren itxura eta partizipioarena berdina dira: eman, egin, ito, hil, itxaron, igo, edan, jasan...

Aditzoinak, gehienbat, ahalezko. subjuntiboak eta aginduzko formak sortzeko erabiltzen dira.

Ekar dezaket (ahalera)

Ekar dezazun (subjuntiboa)

Ekar ezazu (agintera)

c. Aditz izena

Izenak berak garbi adierazten duen bezala, izen bihurtutako aditza da eta *-te* edo *-tze* atzizkiez eratzen da. Nominalizazio izenaz ere ezagutzen da.

Aditz izenek deklinabide atzizkiak ere har ditzakete, izen arruntek bezalaxe.

Hori egitea ona da.

Hori apurtzeak kalte egiten dizu.

Ongi deritzot hori egiteari.

Damu naiz hori apurtzeaz.

Zure gain utziko dut hori egitearen ardura.
 Horixe da zure egitekoa.
 Gakoa hori egitean dago.
 Hori egitetik apurtzera alde handia dago.
 Hori egitera joango naiz.
 Hori egitearekin ez dugu ezer konpontzen.
 Hori gertatzen da beste hori apurtzeagatik.

4.2.2.2. Aditz jokatuak

Molde honetan aditza jokaturik edo konjugaturik ageri da eta hainbat elementuz zehazturik, hala nola: subjektua(k), modua, denbora, aspektua...

Aditz jokatuak bi multzo nagusitan sailka daitezke: trinko edo sintetiko eta perifrastiko edo konposatua.

a. Adizki trinko edo sintetikoak

Adizki edo aditz forma trinkoak hitz bakar batez adierazten dira: noa, dugu, gabilza, nentorren, ginen, daramat, dakarkizut...

Adizki trinkoen kopurua, perifrastikoen ez bezala, nahiko mugatua da gaur egun eta hauek dira gehien erabiltzen direnak:

NOR eta NOR-NORI motakoak: izan, egon, ibili, joan, etorri.

NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK motakoak: ukan, ekarri, eraman, eduki, jakin.

b. Adizki perifrastiko edo konposatuak

Adizki perifrastikoen hitz bat baino gehiago dute: joan naiz; egin dugu; amaitu da...

Oro har, bi elementu bereiz daitezke adizki perifrastikoetan: aditz nagusia (AN) eta aditz laguntzailea (AL).

Etorri	dira	Egin	dute	Saltzen	ditut
(AN)	(AL)	(AN)	(AL)	(AN)	(AL)

4.3.- ADBERBIOA

Adberbioak aditzak adierazten duen ekintza noiz, nola, non... gertatzen den zehazten du. Adberbioak aldagaitzak dira eta, oro har, ez dute aditzarekiko komunztadurarik gordetzen.

Bi adberbio mota daude: aditzondoak eta adizlagunak.

4.3.1. Aditzondoa

Aditzondoa (Adond.), izenak berak adierazten duen moduan, aditzaren ondoan egon ohi da perpausean, ezkerrean edo eskuinean.

Ni *atzo* heldu nintzen.

Zeuren *etorri* zara *berandu*.

Aditzondo batzuk hitz bakunak izaten dira: maiz, agudo, iaz, sarri, bart, gaur, gero, atzo, beti, aspaldi, orain, lehen, aurki...

Beste batzuek modu atzizkiren bat hartzen dute: *korrika, saltoka, ederki, ozenki, astiro, berriro, ederto, isilik, onik...*

Badira, bestalde, hitz elkartuak direnak: *edonon, edonoiz, nonbait, nolabait, noranahi, inoiz, inon...*

4.3.1.1.- Aditzondo motak

Hiru aditzondo mota bereiz daitezke. esanahiari dagokionean: denbora adierazten dutenak, lekua adierazten dutenak eta moduaren berri ematen dutenak.

a. Denbora aditzondoak

Noiz galdetzaileari erantzuten diote: *atzo, bart, gaur, etzi, iaz, lehen, orain, gero, sarri, jadanik, lehenik, lehendabizi, berehalaxe, honezkero, horrezkero, dagoeneko...*

b. Leku aditzondoak

Non galdetzaileari erantzuten diote: *hemen, hor, han, hemendik, hortik, hona, edonon, edonondik, hurbil, urrun, gertu...*

c. Modu aditzondoak

Nola galdetzaileari erantzuten diote: *edonola, nolabait, nolanahi, inola, honela, horrela, hala, honelaxe, ederki, gaizki, egiazki; ederto, egokiro, apurka, harrika, korrika, alferrik, bakarrik, oinutsik, ados, blai, kili-kolo, plisti-plasta, aise, arin, bizkor, dotore, badaezpada, hala-nola, orobat, edozein moduz, poliki-poliki, itsu-itsuan...*

d. Maila aditzondoak

Izenondo, aditzondo eta aditzaren maila edo intentsitate neurria adierazteko erabiltzen direnak dira: *oso, guztiz, biziki...*

e. Iritzi aditzondoak

Perpausetik nolabait kanpora gelditzen diren eta hari buruzko hitzunaren iritzia edo jarrera adierazten duten aditzondoak dira hauek: *menturaz, itxuraz, agian, apika, ausaz, beharbada, dudarik gabe, ag(er)i denez, nire ustez, gure aburuz...*

4.3.2.- Adizlaguna

Adizlagunak bi motakoak izan daitezke: adizlagunak eta posposizioak.

4.3.2.1.- Adizlagunak

Adizlaguna (Adlag) aditzaren ondoan agertzen da, ezkerrean nahiz eskuinean. Aditzondoek ez bezala, adizlagunek atzizkiak behar dituzte.

Haizea dator *iparraldetik*

Zurekin dantzatuko nuke nik.

Adizlagunak bi elementuz osaturik daude: izen sintagma eta kasu atzizkia.

lagunekin = lagun(IS/Iz) + -ekin (kasu atzizkia)

auto gorrian = auto gorri (IS/Iz eta Izond.) + -an (kasu atzizkia)

Honakook dira adizlagunak sortzeko erlazio atzizkiak:

- ekin (norekin): *amarekin, Anttonekin...*

- entzat (norentzat) : *ahizparentzat, niretzat...*
- z (nortaz / zertaz): *eskuz, lagunez...*
- gatik (norgatik) ; *zu(re)gatik, Koldo(ren)gatik...*
- n (non): *mendian, kaleetan...*
- tik (nondik) : *zuhaitzetatik, anaia(ren)gandik...*
- ra (nora): *herrietara, Donostiara...*
- rantz (norantz) : *herrirantz, kaleetarantz...*
- raino (noraino) : *zu(re)ganaino, eskoletaraino...*

Lekuzko kasuek, bizidunak direnean, beste molde bat hartzen dute.

non = norengan

nondik = norengandik

nora = norengana

norantz = norenganantz

noraino = norengaino

4.3.2.2.- Posposizioak

Posposizioak kasu atzizkien funtzioa betetzen duten hitz askeak dira. Bi elementuz osaturik daude: izen sintagmari lotzen zaion kasu atzizkia batetik (-ri, -ren, -tik...) eta honen eskuinaldean adberbio bat (atzizkiduna zein atzizkigabea) bestetik.

Epailearen *arabera* egin dugu.

Eskolatik *at* bota dute.

Han ere txakurrak katuen *aurka* omen.

Nafarroan *barrena* ibili ginen iaz.

Errekaz *bestalde* dago iturria.

Lanari *buruz* mintzo gara.

Talde lanari *esker* bukatu dugu lana.

Surik gabe ez dago ezer egiterik.

I Diruaren *mende* bizi gara gehienok.

Astoaren *parean* gabilta askotan.

Alkatearen *partez* joan da Maddalen.

Afariaren *truke* arkume bat eman zigun.

Kalean *zihar* ibiltzeko moduan zaude.